

**2011KO URTARRILAREN 21EAN GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bata.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Julio Herreros Serna

EZ DA ETORRI: Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko abenduaren 21eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK ESLEITZEA:

a.- Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua.

Ezagutzera eman da, 2011ko urtarrilaren 21eko Kontratazio-Mahaiaren proposamena:

“GAIA: Beasaingo udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioa.

Aipatutako helburua, prozedura murriztuaren bidez kontratatzeko, prozedurari hasiera eman ondoren, Kontratazio Mahaiak 2010eko abenduaren 3an egindako bileran erabaki zuen, GEMUNPAL, S.A.ri, lehenengo fasean aurkeztutako lizitatzailerak bakarrari, errekerimendua egitea zazpi laneguneko epean, ondorengo kartazala aurkezteko: “BEASAINGO UDALAREN ZERGAK IKUSKATZEKO ZERBITZUA ETA LAGUNTZA EMATEKO LANKIDETZA KONTRATATZEKO PROZEDURA MURRIZTUAREN BIGARREN ZATIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”, dokumentu hauekin:

- a) Egin beharreko lanei buruzko memoria.
- b) Ordainetan eman beharreko kopurua jaisten duenari buruzko hobekuntza ekonomikoak.
- c) Proposamen ekonomikoa pleguaren 20. artikuluan azaltzen den ereduaren arabera.

Erabaki honen jakinarazpena, GESMUNPAL, S.A.k, 2010eko abenduaren 15ean jaso zuen eta abenduaren 17an sarrera izan zuen enpresa honek aurkeztutako kartazala, errekerimendu horri erantzunez.

Kartazala ireki ondoren, aurkeztutako dokumentazioa aztertu egin da, ondorengo balorazio irizpideak jarraituz:

Memoria. Zerbitzua prestatzeari buruz, giza eta baliabide materialak erlazionatuz. Egin beharreko lanen deskripzioa, adieraziz zein metodo erabiliko den, kasu bakoitzerako pertsonala, metodologia etab. Hori guztia jakin ahal izateko aurkeztutako proposamena pleguan aipatzen den helburuari egokitzen den. Zilegi da hobekuntzak aurreikustea. Gehienera ere 50 puntu.

Memoria aurkezten du, zerbitzua emateko erabiliko duen metodología adieraziz. Aldi berean, Beasaingo Udalerako erabiliko dituen baliabide material eta pertsonalak ere aipatzen ditu eta hortik ondorioztatzen da kontratuaren helburua ondo betetzen duela.

Hobekuntza ekonomikoak. Ordainetan ezarritako kopurua murrizten duena. Gehienera ere 50 puntu honela sailkatuta:

- 3. klausulako 1. atala: 10 puntu.
- 3. klausulako 2. atala: 40 puntu (20 puntu azpiatala bakoitzeko).

Lizitatzailleak, hobekuntza ekonomikoa aurreikusten du esaten duenean 3. klausulako 1. atalagatik, eskainitako prezioa, 0 €koa dela, ikuskatutako espediente bakoitzeko.

Dena dela, lizitatzaille bakarra dagoenez, puntuaziorik ez ematea erabaki da aurkeztutako eskaintza kontratuaren helburuari doitzen delako, kontutan izanda aipatutako balorazio irizpideak.

Horren ondorioz, kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari proposatzen dio, Beasaingo udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioa:

GESMUNPAL, S.A.ri esleitzea, baldintza plegu administratiboaren eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera. Esleipena lau urteetarako egingo da eta beste bi urtez luzatu ahal izango da. Prezioa ondorengoa izango da:

- Egiaztatua eta ados bukatzen diren espedienteak: 0 €, ikuskatu den espediente bakoitzeko.

- Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzea suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak: ageriko kopuruaren %70a.

- Ikuskapen prozeduran likidatutako eta ageriko kopuruentzat (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna errolde-tara sartzea suposatzen ez dutenak, noizik behin zergapeko egitateak direlako eta banaka eta errepikatu gabe sortzen direlako: ageriko kopuruaren %35a.

Diru kopuru hauetan BEZa ez dago sartuta.

Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio, hamar laneguneko epean, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela: zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak eta 6.000 €ko behin betiko bermea aurkeztea.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, zerbitzua esleitu egingo da eta jarraian dagokion kontratu administratiboa sinatu egin beharko da.”

3.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Aseguruak kontratatze-ko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Ezagutzera eman da Gobernazio Batzordearen proposamena:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, Beasaingo Udala eta organismo autonomoen aseguru-polizak prozedura irekiaren bitartez kontratatze-ko. Horretarako, baldintza administratiboa onartu da, ezaugarri garrantzitsuak honelakoak izanik:

“1.- Prozedura: irekia publizitatearekin.

2.- Izapidetza: arrunta.

3.- Licitazio prezioa: ez da ezartzen.

4.- Kontratuaren iraupena: lau urte gehi beste bi luzatzeko aukerarekin.

5.- Espediente: administrazio-baldintzen eta baldintza tekniko-ko pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratatzailearen profilean.

6.- Proposamen eredia: administrazio-baldintzen agirian aurreikusten dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: proposamenak Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Eskaintza ekonomikoa: 45 puntu.
- Txosten teknikoa: 30 puntu.
- Hizkuntza-irizpidea: 15 puntu.
- Hobekuntza gehigarriak: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztuko beharreko agiriak: lizitatuzaileek administrazio-baldintzen pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Jarraian azaldu da, “*txosten tekniko*” adjudikazio-irizpidearen puntuak honela banatuko direla:

- Aseguratutakoaren esku jartzen diren baliabide pertsonalak (lizitatuzaileak Beasainen bulegoak baditu: 20 puntu; bulegoak 20 km. inguruan badaude: 10 puntu; bulegoak 20 kilometroko baino urrunago badaude, baina Gipuzkoan: 5 puntu).
- Beste baliabide batzuk: 5 puntu.
- Erreklamazioak ebazteko metodologia: 5 puntu.

Idazkariaren iritziz ez da zilegi, enpresaren kokapena eta gertutasuna baloratzea, kontratuaren helburuarekin zuzenean lotetsita ez dagoelako, are gutxiago gaur egun dauden baliabide informatikoekin. Irizpide hori baloratzea, “berdintasuna” printzipioaren aurka doa.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, ALKARBIDE,PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, 11,00etan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.